




NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ETXETIK PLAZARA



IPUINEN MUNDU MIRESCARRIA

Eduardo Galeano

SARIA:
Elgorriagako
bainuetxean
bi lagunentzako
zirkuitua eta
otordua

2015eko EKAINA

143. ALEA

IRAKURLAN

CASCINA PIANAko UR PUTZUA

(Gianni Rodari)


Bazen behin Italiako Saronnotik Legnarorako bide erdian, baso handi baten aldamenean, “Cascina Piana” izeneko hiru patioko basetxe bat. Bertan, hamaika familia bizi ziren. Basetxe horretan ur putzu bat zegoen, eta bai ur putzu xelebrea, alajaina!

Sokarentzat zirrika bat izan arren, ez zegoen han, ez soka, eta ez katearen arrastorik ere. Basetxe hartako familia bakoitzak urontziaren alboan soka bana zuen zintzilik, eta putzura ur bila zihoanak soka hartu, besoan bildu eta ur putzura eramaten zuen; eta putzutik ura atera ondoren, soka txirrikatik kendu eta arduraz eramaten zuen bueltan etxera. Ur putzu bakarra eta hamaika soka. Eta sinesten ez baduzue, zoazte galdetzero. Niri bezala kontatuko dizuete hamaika familia haiek ez zirela elkarrekin ongi moldatzen, eta denek erabili ahal izanzen zuten kate eder bat erosi eta txirrikan ezarri baino lehen, ur putzua lur eta belar txarrez beteko zutela.

Gerra iritsi zen, eta basetxeko gizonek armak eskuetan hartu zituzten beren emazteei mila eta pila aholku emanez; eta hona aholkuetako bat: bakoitzak bere soka ongi zaintzeko, alegia.

Gero, alemaniarren inbasioa etorri zen. Gizonak urrutian zebiltzan eta emakumeak beldurrez zeuden. Hala ere, sokak han zeuden, hamaika etxeetan ongi baino hobeki zainduak.

Egun batez, basetxeko haur batek, basora egur bila zihoala, lahar artean aiene hotsak entzun zituen. Hanka zauriturik zeukan gudari bat zen, eta haurra, lasterka, amari gaztigatzera abiatu zen. Emakume gaixoak, izuturik, ez zekien zer egin. Azkenik, eskuak bihurrituz, erran zuen: “Etxera eraman eta han ezkutuan gordeko dugu. Orain soldadu den zure aitari ere, beharrean izanez gero, norbaitek lagunduko ahal dio!”



IRAKURLAN



Gudaria ganbaran ezkutatu eta medikuari deitu zion, amaxiri bisita egiteko zela erranez. Baina, bertze emakumeek goiz hartan amaxi ikusia zuten oilanda bezain panpox, eta, hortaz, ezkutukoren bat zegoelakoan zeuden. Hogeita lau ordu baino lehen basetxeko guztiek zekiten ganbaran gudari zauritu bat zegoela, eta baserritar zahar batek erran zuen: “Alemaniarrek jakinez gero, honat etorri eta guztiok hilko gaituzte. Ez dugu gehiago arnasarik hartuko.” Emakumeek, ordea, ez zioten baserritarrari kasurik egin. Urrutian zebiltzan senarrengan baitzuten beren gogoia; izan ere, zauriturik eta ezkutalekuren batean egon baitzitezkeen gorderik. Hirugarren egunean, emakume batek odolki batzuk eramane zizkion Kattalinari, gudaria ezkutatu zuen emakumeari, alegia, eta halaxe erran zion: “Gizajo honek zer edo zer jan beharko du bada!”

Geroxeago ardo botila bat zekarren bertze emakume bat azaldu zen; gero hirugarren bat, arto zukua egiteko zorro ttiki bat eskuetan zuela; gero laugarren bat urdai puska batekin, eta ilundu baino lehen basetxeko emakume guztiek Kattalinaren etxea bisitatu zuten, gudaria ikusi eta, malko bana isuriz, opariren bat eman zioten.

Eta gudaria, zauri hura sendatzeko behar izan zuen denbora luzean, seme baten modura zaindu zuten hamaika familia haiek, eta ez zuen deusen beharrik izan.

Gudaria sendatu zelarik, patiora eguzkia hartzera atera zen eta sokarik gabeko ur putzua ikustean, harriturik geratu zen. Estu eta larri, emakumeek, familia bakoitzak soka bat zuela adierazi zioten, baina ez zioten gauza garbirik erran. Egia errateko, elkarren etsai zirela erran beharko zioten, baina gaurgero ez zen egia, gudaria sendatzearen elkarrekin igaro baitzituzten estutasun eta larrialdiak. Artean horretaz jabetu ez baziren ere, lagun eta ahizpa bihurtuak ziren, eta ez zegoen aitzinera begira hamaika soka edukitzeko arrazoirik.

Orduan familia guztien txanponekin kate bat erosi eta gero txirrikan paratzea erabaki zuten. Baita hala egin ere. Gudaria izan zen lehenbiziko ur ontzikada atera zuena eta une horrek inaugurazio baten antza hartu zuen.

Gau hartantxe, gudaria erabat sendaturik, berriz ere mendiratu egin zen.

**“ ...eta HAU HALA BAZAN, SAR DADILA KALABAZAN,
...eta HALA EZ BAZAN, ATERA DADILA ZURE HERRIKO PLAZAN.”**





ZURE TXANDA

A) Ipuinean ageri diren hitz hauek beren definizioarekin lot itzazu.



- 1- ZAURI
- 2- BASETXE
- 3- TXIRRIKA
- 4- AHOLKU
- 5- LAHAR
- 6- GAZTIGATU
- 7- GANBARA
- 8- ODOLKI
- 9- ESTUTASUN
- 10- EZKUTALEKU

- A- Larritasuna edo estualdia.
- B- Egin behar denari buruz ematen edo hartzen den iritzia.
- C- Norbait edo zerbait gordetzen den lekua.
- D- Txerri odol egosiz eta bertze zenbait osagaiez egiten den hestebetea.
- E- Ardatz batean kokaturiko gurpila, uztaiaren ildoan soka edo kate bat daramana zamak jasotzeko.
- F- Larrean edo mendian bakarturik dagoen etxea.
- G- Larria bada, ospitalera eramaten gaituen kaltea.
- H- Jakitea komeni zaion zerbait norbaiti adierazi. Abisatu.
- I- Zurtoin luze arantzadunak, lore zuri edo arrosak dituen eta fruitutzat masusta duen landarea.
- J- Baserri batean, teilatupeko solairua, aletegia.

B) Ipuinetik ateratako esaldi hauek berridatz itzazu.



- 1- Sokarentzat zirrika bat izan arren, ez zegoen han, ez soka, eta ez katearen arrastorik ere.
_____ba_____ere,_____.
- 2- Kontatuko dizute hamaika familia haiek ez zirela elkarrekin ongi moldatzen.
_____elkar_____hartzen.
- 3- Basora egur bila zihoala, lahar artean aiene hotsak entzun zituen.
_____joaki_____rik,_____.
- 4- "Norbaitek lagunduko ahal dio!"
Nahiago nuke_____ba_____.
- 5- Hortaz, ezkutukoren bat zegoelakoan zeuden.
_____uste_____.
- 6- Gudaria sendatzearren, elkarrekin igaro baitzituzten estutasun eta larrialdiak.
_____gatik,_____eta.



BAZEN BEHIN...

“Bazen behin, gizakia existitzen den unetik, munduan zer gertatzen zen, gizakiak zer sentitzen zuen, naturak gizakiari eta gizakiak naturari, 1_____ kontatzeko beharra... Horregatik sortu ziren ipuinak, neurri handi batean gizakiok sortu ginen unean. Zendu berria den Eduardo Galeano idazle uruguaitarrak zioen bezala, “2_____ erraten dute gizakiok atomozen eginak garela, baina niri txoritxo batek kontatu 3_____ istorioz eginak garela”. Hasiera hartan ipuinak ahoz aho, belaunaldiz belaunaldi, herriz herri, etxez etxe... zabaldu ziren jendearen oroitzapenean geldituz. Idazkeraren magiaz baliaturik ipuin horiek kobazuloetan, papiroetan, pergaminoetan, kobazuloetan... idatzita, finkaturik gelditzen hasi ziren. Orduan ipuinak 4_____ bihurtu ziren.

Eta ipuinaren istorioaren ipuin honetan ere erranen genuke bazela behin Euskal Herrian, munduko bertze tokietan bezalaxe, herri bat, hizkuntza bat eta behar unibertsal bat. 5_____, gurean ere ipuinak onddoak bezala zabaldu ziren, ahozko tradizioan hasieran, eta idatzietan gero: lamiak, Basajaun, Tartalo, Mari... eta pertsonaia 6_____ berezko bizitza hartu zuten.

Baziren egiazko ipuinak, fantasiazkoak eta adin guztientzako ipuinak. Baziren helburu ezberdinak 7_____ eta hizkuntza ezberdinetan idatzitakoak. Baziren maitagarrien ipuinak (Txanogorritxo, Loti ederra, Errauskine...); ipuin herrikoiak (Edurnezuri, Hansel eta Gretel...); alegiak (Otsoa eta txakurra, Erbia eta dortoka...); ipuin mitikoak edo kondairazkoak (Sinbad marinela...); 8_____ ipuinak... Baina ipuinak beti magikoak izan daitezke, gozatzeko eta gozarazteko, genero ikuspuntutik sexistak diren rolak eraldatzeko, beste familia ereduak badirela konturazteko, baita laguntasun eta sentimendu ereduak aldarrikatzeko ere. Aukera zabala edozein 9_____ izanda ere.


Ondorioz; bazen behin herri bat bere historia ipuinetan kontatzen zuena. Bazen behin herri bat non ipuinak biztanleen ametsak 10_____. Bazen behin ume bat beti-beti ipuinak eskaka aritzen zena. Bazen behin amaxi, aitatxi, maisu, guraso... beti ipuinak kontatzeko prest zegoena.”

“Hala bazan edo ez bazan... sar dadila kalabazan ... eta atera dadila ETXETIK PLAZAko plazan.”

Testuan dauden hutsuneak betetzeko, aukeratu baliokide zuzena.



- | | | | | |
|--|--|--|---|--|
| 1.- a) elkar
b) elkarri
c) elkarrerri | 2.- a) ikertzaileak
b) ikertzailek
c) ikertzaileek | 3.- a) dit
b) nau
c) didate | 4.- a) altxorrean
b) altxor
c) altxorra | 5.- a) Hala ere
b) Dirudienez
c) Hori zela eta |
| 6.-a) horiek guztiek
b) guzti horiek
c) horiek guztiak | 7.- a) zituztela
b) zutenak
c) zituztenak | 8.-a) bat-bateko
b) bapateko
c) bat bateko | 9.- a) adina
b) adinak
c) adin | 10.- a) zituzten
b) baitziren
c) bait ziren |



Mikroipuinek hitz gutxiarekin asko esatearen artea biltzen dute. Testu osoa eta autonomoa dute eta luzera dagokionez gehienez orrialde bat eta gutxienez hitz batekoak izan behar dute. Beste ezaugarri garrantzitsua dute hitz ekonomia (funtsezkoa baita hitzik ez faltan, ezta soberan ere izatea) eta ezinbertzekoa da iradokitzeo gaitasuna. Horra, bildu dugun sortatxoa.

«Ebak Genesia idatzi izan balu, nolakoa izanen zen gizakion lehenbiziko maitasun gaua? Lehenik eta behin, zera argituko zuen Ebak; ez zela inolako saihetsetik sortu, ez zuela inongo sugerik ezagutu, eta Jainkoak ez ziola sekula erran 1 erditze 2 oinazegarria izan eta gizonaren 3 menpe egon beharko zuela. Ebak argi utziko zuen horiek guziak Adanek prentsari errandako gezurrak baizik ez zirela.» (Eduardo Galeano)

BUROKRAZIA

Sixto Martinezek Sevillako kuartel batean bete zuen soldadutza. Kuartelego patioaren erdian eserleku bat zegoen. Eserlekuaren ondoan soldadu bat izan ohi zen beti guardia egiten. Inortxok ere ez zekien zergatik egiten zen eserlekuaren ondoko guardia. Egin, egin behar zelako egiten zen, gau eta egun, gauero, egunero, eta belaunaldiz 4 belaunaldi ofizialek agindua eman eta soldaduek bete egiten zuten. Inork ez zuen dudarik egin, ezta galdetu ere. Horrela egiten bazen —eta betidanik egiten zen horrela—, zer edo zergatik izango zen.

Eta horrela jarraitu zuen harik eta norbaitek, ez dakit zein jeneral edo koronelek, jatorrizko aginduaren berri jakin nahi izan zuen arte. Gogotik 5 miatu behar izan zituen artxiboak. Eta luze bilatu eta gero, argitu egin zen kontua azkenean. Hogeita hamaika urte, bi hilabete eta lau egun lehenago, ofizial batek eserlekuaren ondoan guardia egiteko agindua eman zuen, pintatu berria zegoenez, ez zedila inor pintura freskoaren gainean eseri.

(Eduardo Galeano)

EZ ZEN ARRUNTA, EZ, HAIEN MAITASUNA

6 Lizunkeriatan ibiltzearen atxilotu zituzten. Eta azalpenak ematen hasi zirenean, ez zien inortxok ere sinetsi. Egia esanda, haien maitasuna ez zen batere arrunta. Bata klaustrofobiak jota zegoen; bestea, berriz, agorafobiak. Huraxe zuten arrazoi bakarra 7 larrutan atarietan egiteko. (Mario Benedetti)

PARADISU AKASTUNA

—Egia da —esan zuen gizonak neguko gau hartan, supazterreko garretatik begiratua 8 aldendu gabe—; Paradisuan badira adiskideak, musika, liburu zenbait; Zerura joatearen alde txar bakarra zera da, handik ez dela zerurik ikusten. (Augusto Monterroso)

FUTBOL JOKALARIA

Kondizio fisiko eta tekniko oso onak zituen futboleko jokatzeko, futbol zelaietako izar berria izan zitekeen.

Baina, baloia zangoetara 9 heltzen zitzaion bakoitzean, zein ekipotako zen ahazten zuen. (Joseba Sarrionandia)

SEKRETUA

Ontsa gorde behar zenez gero, kutxara sartu zuen, eta kutxa hori beste kutxa baten barruan, eta kutxa hau, berriz, beste kutxa baten barruan, eta kutxa hau hirugarren kutxa baten barruan, eta 10 gordailu hau, berriz, beste kutxa baten barruan, eta hau ere seigarren kutxaren barruan, eta hori guzia beste kutxa baten barrura sartu zuen, eta bere gordailua gordetzeko, badaezpadan, beste kutxa baten bila ari da, baina, 11 honezkero, ahaztu egin zaio zer den hain 12 zinez gordetzen ari dena. (Joseba Sarrionandia)

«Chuang Tzuk amets egin zuen 13 inguma bat zela, eta esnatzean ez zekien inguma bat zela amets egindako gizon bat ote zen, edo orain gizon bat zela amets egiten zuen inguma bat.» (Herbert Allen Giles)

Ipuintxoetan beltzez eta azpimarraturik dauden hitzen sinonimoak bila itzazu beheitiko zerrendan:

ERNE, SARIRAKO!

iristen - txortan - gaurgero - urrundu - depositu - benetan/egiazki - arakatu - menean -
haragikeriatan/likiskeriatan - haur-egite - pinpilinpaua/tximeleta - mingarria - gizaldi



ERANTZUNAK

ZURE TXANDA (4. or.):

- A) 1- G; 2- F; 3- E; 4- B; 5- I; 6- H; 7- J; 8- D; 9- A; 10- C
B) 1- ...zirrika bat bazen ere...; 2- ...ez zutela elkar ongi hartzen.; 3- ...joaki zelarik...;
4- ...norbaitek lagunduko balio.; 5- ...zegoela uste zuen.; 6- ...sendatzeagatik, elkarrekin
...igaro zituzten eta.

BITXILOREAK (5. or.):

1- b; 2- c; 3- a; 4- b; 5- c; 6- a; 7- c; 8- a; 9- c; 10- b

142. aleko sariketa erantzunak – Bitxiloreak - Lamiak (6. or.):

1- c; 2- b; 3- a; 4- c; 5- a; 6- b; 7- c; 8- b; 9- a; 10- c

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **6. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria:
**Elgorriagako bainuetxean
bi lagunentzako zirkuitua
eta otordua**

142. aleko irabazlea:
**Alazne Aizpuru Iriarte
Narbartekoa**

ETXETIK PLAZARA liburua SALGAI

IKA euskaltegietan eta honako liburu-denda eta saltokietan:

- Beran; Agara eta Igone - Lesakan; Xagu - Arantzan; Ilargi okindegia;
- Igantzin; Bi Bide denda - Donezteben; Ostiz, Blas eta IKA euskaltegia
- Elizondon; Axular eta Nafarpress - Leitizan; Maimur, Astiz eta IKA euskaltegia.

6 eurotan, jantzi zure euskara eta lagundu gure lana!



OHARRA: erantzunak ekainaren 26a baino lehen bidal itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

Sarirako ariketa - mikrolPUINAK (6. or.):

- | | | |
|-----------|-----------|------------|
| 1 - _____ | 6 - _____ | 10 - _____ |
| 2 - _____ | 7 - _____ | 11 - _____ |
| 3 - _____ | 8 - _____ | 12 - _____ |
| 4 - _____ | 9 - _____ | 13 - _____ |
| 5 - _____ | | |



UDAN ere, EUSKARA errazago eta azkarrago



metodika
euskara ikasteko metodologia berria



- LESAKAN, 100 orduko UDA IKASTAROAK, 4. urratsetik EGArA
- DONEZTEBEn, abuztuan, EGA ikastaroa

Informazioa eta matrikulak:

- Uda ikastaroak, 948 637 796 bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus
- Doneztebeko EGA ikastaroa, 948 451 555 malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

www.ikaeuskaltegiak.eus

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Nafarroako
Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefonoa:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia. Arretxea 22 31770 Lesaka

Malerrekako IKA Euskaltegia. Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.

